

Zortzi poema berri

Iñigo Astiz

KATUA PIANOAN

Do, mi, si,
–Pianoan mixi.

Re, la, si
–Jotzen dela hasi.

Mi, mi, la
–Hau zarata pila!

Fa, mi, la
–Isildu dadila!

La, re, la
–Gortuko naiz bestela!

Si, re, re
–Eeeeeeeeh???



UMEA, LEIHOA, LEHOIA

Inigorentzat

Umea.
Umea eta leihoa.
Leihoa eta lehoia.
Lehoia eta umea.
Lehoia.

Eta Umea?



KARAKOLARENA

Karakola bat ekarri didate itsasotik
Eta olatuak entzuten dira barrenetik.

Hurbildu dut belarri batera gogotik
Eta arrain gorri bat atera zait bestetik!



EKAITZA

Entzun, txingorra teilatuetan,
Leihoen kontra euria!

Ikusi tximistak zelaietan,
Hori da hori argia!

Goiza dirudi gauak batzuetan;
Ilargiak Eguzkia!

Eta aharrausika zuhaitzetan,
esnatu berri txoria.

Hor, bira eta bira, begira!
Putrea hodeiak orraztuz,
Hor, bira eta bira, begira!
zeruan O bat marraztuz.

Hor, bira eta bira, begira!
Zureganaino heldu gara,
Hor, bira eta bira, begira!
Zorabiatu al zara?


BOTILA ITSASOAN

Botila itsasoan,
Mezutxo batekin.

Barruan hitzik ez,
Ezta ere paperik.

Eskutitzik ez du,
Ura, ez besterik.

Botila itsasoan
Barruan beste itsaso batekin.



ELEFANTEAK PISATZEKO-A

Hartu orri txuri bat
eta margotu bi zorri,
urdin soineko bana
eta bi kapela gorri.

Hartu beste orri bat
eta margotu lau elefante,
hiru zinez zarpail,
eta bat oso elegante.

Hartu bi orriak gero,
bat esku bakoitzeko,
eta ikasia duzu modua
elefanteak pisatzeko!

ELEFANTEAK PISATZEKO-B

Margotu orri batean bi elefante,
Margotu beste batean bi ahate,
Pisatu eskuaz orri bakoitza,
Eta biek pisu bera daukate!

LOREARENA

Loreari kendu hosto bat,
eta esaten dit baietz.
Baina kendu beste bat,
eta esaten dit ezetz.

Kendu dizkiot denak
banan-banan erantziz;
eta ez baietz, ez ezetz,
baizik eta alderantziz.



MENDIA

Mendi
Bat dago
Hitz hauetan.
Lerroen artean
Dabil ezkutaketan,
Berde magala belarrez,
Zuri-zuri tontorra elurrez,
Igo zara goraino errez,
Azkar asko benetan,
Mendia dago eta
Ezkutaketan
13 lerrotxo
Hauetan.